

Goi Mailako
Lanbide
Heziketa

Irudi
pertsonala

Estetika integraleko eta ongizateko goi mailako teknikaria



Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra



UNIÓN EUROPEA
EUROPAR BATASUNA

Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Funtza

El FSE invierte en tu futuro
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

Estetika integraleko eta ongizateko goi mailako teknikaria

Zure etorkizuneko bizibidea

Ziklo hezigarri hau amaitzen duzunean kalifikatuta egongo zara hurrengo jarduera profesionalak garatzeko:

Hidrotermala

- Zerbitzu hidrotermalak eta zerbitzu osagarriak protokolizatu eta antolatzea.
- Teknika hidrotermalak aplikatu eta gainbegiratzea, protokolo normalizatuak pertsonalizatuz.
- Zerbitzu hidrotermaletan kosmetika termala aplikatzea.
- Eskuzko masajeak eta/edo masaje mekanikoak ematea helburu estetikoekin.

Masaje estetikoak eta horiei loturiko teknika sentsorialak

- Diagnostiko estetikoa egitea eta protokoloak diseinatzea, masajerako eta drainatze linfatikorako teknikak eta teknika sentsorialak integratuz helburu estetikoekin.
- Eskuzko masajeak eta/edo masaje mekanikoak ematea helburu estetikoekin.
- Eskuzko drainatze linfatikoa eta/edo drainatze mekanikoa egitea helburu estetikoekin.
- Presio bidezko masaje teknikak erabiltzea helburu estetikoekin.
- Teknika sentsorialak eta masajeak batera erabiltzea helburu estetikoekin.

Tratamendu estetikoak

- Diagnostikoa egitea eta protokolo estetiko pertsonalizatuak diseinatzea.
- Eskuzko masajeak eta/edo masaje mekanikoak ematea helburu estetikoekin.
- Eskuzko drainatze linfatikoa eta/edo drainatze mekanikoa egitea helburu estetikoekin.
- Elektroestetikako teknikak aplikatzea, tratamendu estetiko berariazkoetan txertatuz.
- Tratamendu estetikoak egitea, teknika kosmetologikoen, elektroestetikoen eta eskuzkoen aplikazioa koordinatuz.

Osatu gabeko lanbide kalifikazioak

Beltzarantzea, makillajea eta depilazio aurreratua

- Beltzarantze artifizialerako teknikak segurtasun eta osasun baldintzak betez aplikatzea.
- Behin betiko depilazioa egitea eta/edo aldi baterako depilazio prozesuak gainbegiratzea.
- Mikropigmentazio prozesuak egitea eta gainbegiratzea.

Makillaje integrala

- Makillaje integrala aplikatzeko giza baliabideak eta baliabide teknikoak prestatzea.



+ INFO

T 848 42 66 16 | 848 42 64 00

www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/formacion-profesional

Irudi pertsonala

KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Profesional honek irudi pertsonalaren zainketaren sektorean jarduten du, zainketa estetikoaren azpisektorean, arlo hauetan aritzen diren enpresa txiki eta ertainetan, gehienetan pribatuak diren: tratamendu estetiko integralak, estetika hidrotermala, pigmentuen mikroezarpena, depilazio aurreratua, masaje estetiko eta drainatzea, eta tratamendu eta produktu kosmetikoen arloko aholkularitza.

Hauek dira jarduera eta lanpostu aipagarriak:

- Estetikalaria.
- Zuzendari teknikoa enpresa estetikoetan edo irudi pertsonaleko sailetan, spa zentroetan eta bainuetxeetan.
- Tratamendu estetiko integraletako teknikaria.
- Teknika hidroestetikoetako teknikaria.
- Mikropigmentazioko teknikaria.
- Depilazio mekaniko eta aurreratuko teknikaria.
- Aparatologia estetikoko teknikaria.
- Erradiazio ultramorearen bidezko beltzarantze tekniketako espezialista.
- Masaje estetikoetako teknikaria.
- Drainatze linfatiko estetikoetako teknikaria.
- Langile kualifikatua medikuntza eta kirurgia estetikoko zentroetan.
- Teknikari komertziala.
- Estetika eta kosmetika arloko aholkularia.
- Estetika arloko hezitzaile teknikoa.

ZIKLOAREN MODULUAK

- Aparatologia estetikoak.
- Masaje estetikoak.
- Mikropigmentazioak.
- Irudi pertsonaleko prozesu fisiologikoak eta higiene-prozesuak.
- Dermoestetika.
- Estetikako eta ongizateko kosmetika.
- Ingelesa.
- Estetika hidrotermala.
- Depilazio aurreratua.
- Drainatze estetikoak eta presio bidezko teknikak.
- Tratamendu estetiko integralak.
- Lanerako prestakuntza eta orientabideak.
- Enpresa eta ekimen sortzailea.
- Estetika integraleko eta ongizateko proiektua.
- Lantokietako prestakuntza.